

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### Tokiko gobernu batzarreko kideak izendatzea

2019ko uztailaren 3ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, tokiko gobernu batzarra eratu da eta honako hauek osatzen dute: Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa zinegotzi-lehendakaria, Rufino Santocildes Orue batzordekidea eta Zalao Gorostizaga Ugarte idazkaria, denak EH-Bildu udal taldekoak.

Osoko bilkura berean adostu da tokiko gobernu batzarrean eskumenik ez eskuordetzea.

Osoko bilkura berean adostu da tokiko gobernu batzarrari dagokiola alkateari haren eskumenak betetzen laguntzea, baita eskuordetzen zaizkion honako eskumen hauek ere:

- 1) Udalaren zerbitzuak eta obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- 2) Onartutako aurrekontuarekin bat etorri ekonomia kudeatzea eta bere eskumeneko gastuak egitea, ordainketak agintzea eta kontu ematea.
- 3) Lanpostuen eskaintza publikoa onartzea, udalbatzak onartutako aurrekontuarekin eta plantillarekin bat etorri; bai eta langileak hautatzeko proben oinarriak eta lanpostuak betetzeko lehiaketak ere. Horrez gain, finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.
- 4) Langileen izendapenak eta zehapenak erabakitzea, salbu korporazioko funtzionarioak zerbitzutik kentzea eta lan kontratudun langileak kaleratzea.
- 5) Planeamendu orokorra garatzeko tresnak onartzea, udalbatzari berariaz esleituta ez badaude; bai eta hirigintza kudeatzeko tresnak eta urbanizazio proiektuak ere.
- 6) Zehapenak jartzea hark emandako aginduak bete ez dituztenei edo udal ordenantzak hautsi dituztenei, nola eta horretarako ahalmena ez dagoen beste organo batzuei emana.
- 7) Obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, baldin eta eskumenik badu horiek kontratatu edo emateko, eta aurrekontuetan jasota badaude.
- 8) Era guztietako kontratazioak eta emakidak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duenak, xedapen gehigarrietatik bigarreanean ezarritako mugen barruan, salbu administrazio kontratazioari buruzko legedian ezarritako kontratu txikiak, 1.000 eurotik beherakoak direnak.
- 9) Eskubide eta ondasunak eskuratzea, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua onartzen duenak, xedapen gehigarrietatik bigarreanean ezarritako mugen barruan.
- 10) Baimenak ematea, nola eta sektoreko legeek ez dioten ahalmen hori berariaz udalbatzari ematen.

Tokiko gobernu batzarreko ohiko bilkurak astean behin izango dira, astearteetan, 8:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (jaieguna bada, jaieguna ez den hurrengo asteazkenean egin ahal izango da).

Izarra, 2019ko uztailaren 30a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA*